

SANTA TERESA JESUSENA: IDAZLAN GUZTIAK LIBURUAREN AURKEZPENA

2016ko martxoaren 16ko data, letra handiz idatzia agertuko zaigu etorkizunetako kroniketan, egun horretan egin baitzen Aita Luis Baraiazarrak itzultitako Santa Teresa Jesusenaren *Idazlan Guztiak* liburu bikainaren aurkezpena, Bizkaiko Foru Liburutegiko areto eder batean.






Egun aipagarria eta gogoangarri izan zen *KARMEL* aldizkari honentzat ere bertako Liburu Sortan argitaratua izan baita liburu hori, lehendik genituen zenbait liburu ederren sorta paregabea osatuz.

Bertan izan ginen *KARMEL* aldizkaria bultzatzen ari garen zenbait idazle, Aita Luisen familiartekoak eta beste zenbait

kultur ekintzaile. Prentsaurrekoa izanik, zer esanik ez, inguruko komunikabide gehienetako ordezkariak.

Ekitaldi horrek oihartzun nahiko zabala izan zuen hurrengo egunetako komunikabideetan. Ez zen gutxiagorako, ez, literatura alorrean zein erlijioarenean lan hain bikaina eta garrantzitsua izanik.

Aurkezpen-mahaian lau pertsona izan genituen, aurrez aurre, bertan bildu ginon guztion gozamenerako. Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean Ana de Castro Kultura Saileko Zuzendari Nagusia. Andres Urrutia Euskaltzainburua, Luis Baraiazarra itzultzailea eta Julen Urkiza *KARMEL* aldizkari honen zuzendaria eta argitalpenaren arduraduna.



Santa Teresa Jesusenaren Idazlanak, aldizkari honen irakurleok dakizuenetz, Santa Teresaren jaiotzako V. mendeurrenaren harian sortutako emaitza ederra dugula esanez eman zion hasiera Ana de Castro andereak ekitaldiari.

Gaur egun euskararen eguneratzean eta garapenean itzulpenek duten garrantzia azpimarratu ondoren, hitzez hitz honako hau esan zuen:

“Eliza Katolikoan garrantzitsua izan den pertsona baten obra euskaratzea bizkuntz ondarea da. Alde batetik, euskaldunen esku obra garrantzitsu bat jartzea aukera ezin hobea delako gure bizkuntzaren kalitatearen ikuspegitik, eta bestetik, ekarpena delako euskara aberasteko orduan ere, morfologiaren eta Lexikografiaren ikuspuntutik, hain zuzen. Izan ere, gaur aurkezten ari garena etorkizunean kontuan hartuko da, euskararen corpusa jasotzen duten memorietan”.





Jarraian Bizkaiko Foru Aldundia beti prest izan dela hone-lako ekimenei laguntza emateko aitortu ondoren, honako hau erantsi zuen:

“Altxor bat da eskuartean daukaguna, erdal letretan eragin eta itzal handia izan eban emakume baten ekarria euskaraz

eskaintzen dogulako. Gaur aurkezten doguna geroko lanetan kontuan hartuko da eta horrexegatik eskertzekoa da itzultzaileak egin daben ahalegina, bai eta hemen batu garen guztiok lana partekatzeke erakutsitako borondatea ere”.

Ondoren, liburuan ageri diren Santa Teresa Jesusenaren lanik garrantzitsuenak aipatu zituen laburki bakoitzaren ezaugarri behinenak gogora ekarriz. Alor hori, baina, Aita Luisen ahotik ere entzun genuenez, itzultzailearen esku utziko ditut azalpenak.

Andres Urrutia euskaltzainburua ere han izan genuen, gogotsu mintzatuz. Honek ez zuen aparteko idazkirik behar izan lanaren balioa eta garrantzia agerian jartzeko. Egin-eginean ere, berea izanik Liburuan agertzen den *aitzinsolasa*, liburua ireki eta era didaktikoan irakurri zizkigun bere ustez gogora ekarri eta aipagarriak diren zenbait lerro.



Aita Luis Baraiazarrak egindako lan erraldoia eta horretan erabilitako ordu luze ugariak goraipatu ondoren, honako hauek gogoratu zizkigun ekitaldi horretan bilduta geundenoi:

“Klasikotik klasikora, klasikotasunez landu ditu Baraiazarra itzultzaile trebeak santa Teresaren testuak. Horretara, jada gaztelaniazko testu klasikoa dena, euskarazko klasiko bihurtzeko tenorean jarri du, aurrerantzean modu eskuragarri eta esanguratsuan izango baititu Euskal irakurle horrek mistika katolikoaren testurik behinena.

Klasikotasun berberetik abiatu eta santa Teresaren testuak, euren gatz eta korapiloak barne hartuta, irakurketa tolesgabea egiteko parada ematen du itzultzaileak, batera eta bestera barreriatuz euskarazko hitzen eta testuen jario jatorra eta sustraiduna.

Badator, beraz, arnas handiko eta goi mailako emaitza euskararen esparrura. Ongi-etorria egin diezatogun horri eta hurrengo ekimenetarako oinarria izan dadila, urratsez urrats joan gaitezen guztiok Euskara eta Euskal kultura aurreratzen eta aitzinatzen”.

Aurreko hizlari biek Luisen lana goraipatzeaz batera, bizkaitarren eta Euskal Herriko herritarren izenean eskerrik be-roenak ere agertu zizkieten, egindako ahalegin paregabea aipatuz.

Ondoren etorri zitzaigun aurkezpenaren zerik garrantzitsuena, hots, Aita Luis Baraiazarrak egin zuen liburuaren aurkezpena. Bera dugu, hain zuzen ere, itzulpen bikain horren egilea. Gainerako aipamenak, goratarreak eta abar luzea, era arruntagoan esanda, ‘koplak’ baino ez ditugu.

Luzeegi litzateke berak aurkezpen ekitaldi horretan esandako guztiak hemen jasotzea. *KARMEL* aldizkari honetan behin eta berriro jarri dizkigu lehenago ere Santa Teresaren idaz-



ki nagusien zertzeladarik ederrenak. Hemen, bada, bertan jendaurrean gogoratutako hona hauen oihartzuna edo eskaintzen dizuet:

“Edukiaren ikuspegi arina agertu nabi nuke, pantaila batean bezala:

Bizitza Liburua. Haren obra guztietan ospetsuena. Aitor-entzule eta arima zuzendarien aginduz idatzia. Liburuaren izenburua ez da Teresarena; honek ‘ene arima’, ‘liburu handia’... erabiltzen ditu hartaz ari denean; ‘Jainkoaren errukiena’ izenburua jarri nion, dio gutun batean.

Perfekzio Bidea. Liburu hau da Teresaren lumaren emaitzarik finena, adituek diotenez. Teresaren Konstituzioak bezala da obra hau. Hala ere ez da obra juridikoa, didaktikoa, forma-

ziokoa baizik. Jainkoarekiko maite-barreman barnekoia, helburu apostolikoa duen kontenplazio-ideala azaltzen du hemen.

Barne Gaztelua. Aditu askoren iritziz, baren obra mistiko osoaren gailurra da. Teresaren lurreko azken aroko fruitu helburua, autorearen behin betiko bilakabide espirituala agertuz batera, aurreko obrak, 'Bizitza Liburua' eta 'Perfekzio Bidea' osatzen dituena.

Fundazioak. Hau da Teresaren obretatik azkena, hil baino egun batzuk lehenago burutu zuena. Ez zituen guztiak jarraian idatzi, tarteka-marteka baizik, 1573tik 1582ra bitartean.

Gutunak. Komunikatzeko idazten ditu gutunak. Arima irekia zuen. Bakardade zalea bazen ere, giza mailan komunikatzeko bideak behar eta nahi zituen. Era askotako pertsonekin





ditu gutunezko barremanak: teologoekin, abizpa erlijiosoeekin, goi-mailakoekin, herriko merkatariekin, jende xumearekin...

Arimako Kontakizunak, Jainko-maitasunari buruzko Gogoe-tak, Olerkiak eta obra txikiagoak, *baina ez gora txikiagokoak datoz gero, hurrenez hurren.*

Mendeurren honek bultzada emanik eta handik eta hemen-dik kontzientzia bizkortzera etorritako ziztadei erantzunez, ekin nion, era berean nekagarri eta zirrargarri gertatu zai-dan lan boni. Izan ere, geure mugak aitortuz eta apaltasunez, baina emakume miresgarri hau euskal letretako plazara ager-tzea, plaza txikitxoa bada ere, ez dela gutxiestekoa uste dut; are gehiago, ekarpen ederra izango dela. Hori izan nabi luke

gure argitalpen honek: santa Teresa oso-osorik, Gutunak ere baru direla, liburuki bakar batean, euskal letren plazara eta euskaldun guztientzat eskuragarri agertzea.

Amaitzeko Julen Urkizak hartu zuen hitza. Berau dugu *KARMEL* aldizkari honen zuzendaria nahiz *Karmel Sorta* deituriko liburu sortaren prestatzailea.

Bide batez gogora ekarri zituen *Karmel Sorta* osatzen dituen zenbait liburu ere, hala nola, Aita Lino Akesoloren *Idazlanak*, Santiago Onaindiaren *Olerkiak*, Frai Bartolome Santa Teresaren *Idazlan Guztiak*, Teresa Liseuxkoaren *Idazlan Guztiak*...



Horien artean leku berezia izandako Aita Lino Akesolo eta Aita Onaindia aipatu zituen bereziki, hauek hasi baitziren Santa Teresaren lanak euskaratzen, batez ere Aita Onaindia izan genuela Avilako Santa Teresa Jesusen idazlanak euskaratzen saiatu zen idazlerik behinena azpimarratuz.

Honelako liburu handi batek argitalpen-prozesuan izaten dituen eragozpenak nahiz beste zenbait jakingarri tekniko ere eman zizkigun jakitera, esaterako, nola antolatuta dagoen, bertako oharrek duten garrantzia, aurkibide egokiak izatearen onura, hitz bereziei buruzko euskarako hiztegi apropos bat bertan eskaintzea eta abar luzea.

Labur eta zehatz argitu zizkigun, bada, liburua taxutzean jarraitutako zenbait zertzelada, halakoak agerian agertzen ez badira ere, ardura handiz zaindu beharrekoak izaten direla azpimarratuz.

Ekitaldi horretan hainbat argazki ere atera ziren. Hemen dituzue batzuk lantxo honen osagarri gisa. Goza dezazuela itzulpen bikain hau eta merezitako oihartzuna izan dezala gizartean, euskal herritarrek benetako ‘harribitxi’ dugun liburu hau ezagutzeko edota, nahi izanez gero, eskuratzeko.

Patxi Uribarren Leturiaga